



berria

Osteguna  
2008ko urtarrilaren 10a

Ikurrinaren koloreekin, lehen euskal egutegia Seaskarena izan zen, duela 25 urte. NICOLAS MOLLO

# Hogeita bost urteko egutegia

XAN AIRE  
Baiona

Sukalde xokoko pareta batean dago zintzilik. Nahiz eta ez dion behar den eguna jarri, Seaskako egutegia «goxo» zaio Kattini. Urtea bukatzen ikusten duenean, bilobari bat eskatzen dio andereak. «Biloba ikastola batean ari da lanean, beraz, erraz eskuratzen ahal dit. Nire sukaldean ikusteko usaia hartu dut, duela aspaldi, eta orain ez nuke nahi pareta hori hutsik ikusi. Egutegirik ez baldin bada, ikastolik ez da, nire buru zaharrean!». Ikastolak eta Seaskak bezala, bere abentura txikia dauka egutegiak. Hogeita bost urteko abentura luzea.

1982 bukaeran egutegi zuri, gorri eta berde bat agertu zen, euskal izenekin josirik. Seaskaren egutegia paretetan zintzilik dago oraindik.

1982. urtearen bukaeran egutegi zuri, gorri eta berde bat agertu zen Euskal Herrian. Ikurrinaren koloreekin apaingua izateaz gain, euskal izenez josia zen. Jose Muruaga eta Manex Goienetxe izan ziren Seaskaren lehen egutegiaren ekoizleak, hainbat pertsonaren laguntzarekin. Baina 1970eko hamarkadan, egutegi zuri, gorri eta berde bat argitaratzen zuen dagoeneko Seaskak, Hego Euskal Herriari kolore alai tinta batzuk eman beharrez, frankismoaren garaia baitziren urte haietan. Baina ikurrinaren koloreak debekatuak izan ziren, eta egutegia desagertu zen. Baina lehen egutegi horren arrakastak bere aztarnak utzi zituen.

1981ean euskal egutegi baten pentsatzen hasi ziren Jose Muruaga eta Manex Goienetxe, Xan Coscarat, garai hartako Seaskako arduradunaren laguntzarekin. Hendaiako Mugalde inprimategian lanean ari zen, orduan, Muruaga, eta horrek proiektua aitzinarazi zuen: Seaskak diru arazo larriak zituen, garai hartan, eta horrela jokatu, papera eta tinta baizik ez zituen ordaindu behar izan. Baina garai hartako guraso militanteen indarra ere behar izan zen proiektuari arrakasta pixka bat emateko. 1982. urte bukaeran gaurko itxurari hurbil duen lehen euskal egutegia agertu zen, saltzeko, eskaintzeko, Seaskak dirua irabazteko.

Jose Muruagaren iduriko, egutegi-ko izenen antolaketa izan da zailena. 365 euskal izen aurkitu, eta hainbat egunetan kokatu, bakoitzaren lekua-ri arrazoi bat eman. Ez da, hasteko, Frantziako edo Espainiako egutegien itzulpena izan. Saindu berberak baldin badituzte ere, ez dituzte egun beretan ospatzen. Frantziako eta Espainiako egutegien antolaketa %50 berdina da. Eta euskal nortasunaren oihartzuna izan nahi zuen Seaskaren egutegiak.

**40.000 ALE, AURTEN.** Horiek horrela, Euskal Herriko lekuen izenak sartzea erabaki zuten, parrokiak zein herrienak. Sainduen izenez gain, euskarara itzuliak diren izenak ere aurki daitezke egutegian, bai eta hizkuntzalariek asmatuak: Koldo eta Iñaki izenak, Sabino Aranak eta Koldo Elizalde pentsatuak, bai eta Agusti Xahoren Aitor Euskal mitologiako pertsonaien izenak ere jarri dituzte: Leize, Lur, Sugar, Heren, Mari, Maia. Jende ezagunen izenak, edo ezizenak: Bordaxuri, Etxahun, Iratzeder eta Xalbador, hori azaroaren 7an emana, egutegian, bere heriotza egunean (1976an).

Gertakariak ere kudeatu izan behar izan zituzten. Frantziako eta Espainiako besta egunak azpimarratu, kolore ezberdinez, uztailaren 14a, edo abenduaren 6a. Girstinoen egun garrantzitsuak, azaroaren 1a, Omiainsandu, eta abenduaren 25a, Eguberri. Egun batzuetan Hego Euskal Herriko probintzia bakoitzak bere kolorea dauka, eta Ipar Euskal Herriak berea. Baina Gernikako bonbardaketa ere apirilaren 26ak gogorarazten du: Aberri Eguna ere azpimarratu da.

Aurtan, egutegiaren 40.000 ale inprimatuak izan dira. Hogeita bat mila Ipar Euskal Herrian banatuak dira, eta 10.000 Hego Euskal Herrian. Nafarroako ikastolak laguntzeko bilduak dira hegoaldeko irabaziak. Seaskak, berriz, etekin polita irabazten du orain, duela 25 urte abiatu zuten abentura harekin. Eta milaka guraso ibiltzen dira, egunez egun, mundura etorriko den zorianari izen bat aurkitu beharrez.